

informazio txostena

Euskal preso politikoak frantziar estatuan

Ipar Euskal Herriko ETXERAT 2012ko urria



aurkibidea

Sarhitzia
3 orrialdea

sakabanaketaren mapa
4 orrialdea

Egoera urjenteenak

Hurbilketa -isolamendu eta sakabanetarekin bukatzea
5 orrialdea

Presoen eta familien eskubideen urraketarekin bukatzea
6 orrialdea

Estatuei deia
7 orrialdea

Euskal preso politikoen kolektiboa eta salbuespeneko kartzela politika
8 orrialdea

Frantziar estatuko presoen zerrenda
14 orrialdea

Ipar Euskal Herriko familiak
16 orrialdea

**Serge Portelli epailea
Frantziakopresondegietaz**
37 orrialdea

Senideen testigantzak
38 orrialdea

EUSKAL PRESO POLITIKOAK EZ DIRA GATAZKAREN JATORRIAN, ONDORIOETARIK BAT BAIZIK

Gernikako akordioen ondotik, ETak armak uzten zituela iragarri eta nazioarteko aditu talde batek hori baieztatu ondoan, Aieteko konferentzian lehen mailako pertsonalitateak inplikatu eta Euskal Herriko aktore politiko eta sozial gehienek parte hartu ondoan, gaur egun, frantziar eta espainiar gobernuak dira bortizkeria erabiltzen segitzen duten bakarrak : luzatua zaien eskua ukatuz eta herriaren gehiengoak bake justu eta iraunkor baterako baldintzak sortzea eskatzen duelarik, eskari hori ukatuz.

Terrorismoaren kontra hartzen dituzten neurri zentzuzkoekin, bortizkeria hori ez da sekulan bukatzen preso eta familientzat : urruntasuna, sakabanaketa, isolamendua, prozedura judizial bukaezinak (5 eta 8 urte arteko behin behineko presondegiratzeak), gehiengo kondenak, biziarteko presondegiratzeak beste Parot deitu doktrinarekin (197/2006), kondenaren nahasketen edo baldintzapeko askatasunen ukatzea eta egoitz esleipenak.


Baldintza horiek, ehundaka familien egunerokotasuna baldintzatzen dute, gaur egun, 640 familia hain zuzen, horietarik 40 ipar Euskal Herrian bizi direnak.

ASKI DA !

Sakabanaketaren mapa

SAKABANAKETA MAPA

2012ko martxoan Euskal Preso Politikoaren Kolektiboko 650 kide aurkitzen ziren espetxeraturik. Horietatik zazpi bakarrik aurkitzen ziren Euskal Herriko espetxeetan. Bestetik, hamaika presoek espetxe arindua ezarrita daukate, modu horretan beren etxeetan preso mantenduz. Beste preso bat, konfinamendu egoeran aurkitzen da Autun herrian (Frantzia)



Hurbilketa

Berehalakoa, legeak hala baitio

Prozedura Penaleko Kodeko 402 artikulua :

« *atxilotuek beren hurbilekoekin duten harremana bereziki zaindu eta mantendu behar da* ».

Giza Eskubideen Europar Hitzarmena 8garren artikulua :

« *1.- Pertsona orok du berari dagozkion datuak babestuta izateko eskubidea. 2.- Datu horiek leialtasunez landuko dira, helburu zehatzetarako eta dagokion pertsonaren onespena oinarri dela edo legeak aurreikusitako bidezko beste oinarri baten indarrez. Pertsona orok du berari dagozkion datuetara iritsi eta horiek zuzentzeko eskubidea, jasota badaude.* »

Nicolas Sarkozy, Barne ministroak, 2002ko otsailaren 29an :

« *ez dakit zergatik legea ez litzateken beteko Kortsikan. Presoak hurbilduak izanzen dira, ez kortsikarrak direlako, legeak hala diolako baizik* ».

Nicolas Sarkozy, presidenteak, 2012ko martxoan Itsasun :

« *Hurbilketa desiragarria da... arrazoin humanitarioentzat besterik ez bada ere...* ».

25 urte legetik kanpo direla

Isolamendu eta sakabanaketarekin bukatzea

Neurri hauek, askatasuna ukatzeaz haratago, kondena bikoitz eta hirukoitza eragiten dutelako, helburuak argiak direlarik :

- preso psikologikoki haustea, hurbilekoekin harremanak mugatzea, defentsa eskubidea tratatzea, ingurumen hostilean isolatzea.
- presoen familia eta hurbilekoak fisikoki, psikologikoki eta ekonomikoki desgitea.

Neurri hauen krudeltasuna azpimarratu eta salatu eta beren desgitea lortu behar da.

Presoen eskubideen urraketarekin bukatzea

Badira urteak, Giza Eskubideen Europar Hitzarmena 3garren artikulua urraketa salatzen dugula : « inork ez dezake tortura ez eta kondena edo tratu ankerrik jasan ».

Gaur egungo kartzela sistemak, askatasuna kentzeaz gain, beste hainbat zigor arbitrario gehitzen ditu, eskubide gutxiengoak txantaia sistematiko bilakatuz.

Eskubide guziak urratuak dira erregulartasun handiarekin.

Norberaren eskubideak edo eskubide zibilak : baldintza duinerako eskubidea, tratu txarrik ez pairatzeko eskubidea, mediku artarako eskubidea, afektuzko harreman eta harreman sozialetarako eskubidea, norberaren hizkuntza mintzatzeko eskubidea, guraso izateko eskubidea, ikasketak egiteko eskubidea...

Eskubide kolektibo edo politikoak : eztabaidatzeko, antolatze, bozeramaileak izateko, beste eragile politiko eta sozialekin harremanak izateko eskubidea... Denak aintzetan zapalduak dira.

Jean-Marie Delarue, kartzeletako kontrolatzaile orokorrak, jadanik informatu zaituzte urteko txostenetan, presoek orokorki bizi duten egoeraz.

Familien eskubideen urraketarekin bukatzea

Familiek preso dituzten hurbilekoekin harremana mantentzeak prezio bat du :

Ehundaka orduko bidaiak,
milaka kilometro,
milaka euro,
neke eta estresaren akumulazioa.

Eta egun batez, gutarik askorentzat, arrazoi fisiko edo materialengatik bidaiak ezin segitu izana.

**GUTARIK 16entzat, HERIOTZA SAKABANAKETAREN BIDEETAN
NOIZ ARTE SEGITUKO DUTE FAMILIAK BAHITZEN ?**

Estatuei deia

Gatazka konpontzeko, terrorismoaren kontrako tresneria guzia bertan behera gelditu behar da.

Eztabaidarako baldintzak sortu behar dira, partaide guzien artean, salbuespenik gabe.

Estatuek, engaiatu behar dira, preso, iheslari eta deportatuak aterabide baten atxemaiteko desmartxan integratuak izan daitezzen.

Gure herriarentzat etorkizun bat nahi duten guziak inplikatu behar dira eta aldaketaren alde lan egin.

Guk, preso, iheslari edo deportatuen familiek, « gerla » guretzat ere buka dadin nahi dugu.

Gure haur, bikotekide, guraso, hurbilekoak gurekin nahi ditugu etxean.

EUSKAL PRESO POLITIKOEN KOLEKTIBOA eta salbuespeneko kartzela politika

2012ko urrian, 84 presondegitan sakabanatuak diren **607 euskal preso politikok** osatzen dute euskal preso politikoen kolektiboa. **445** dira **espainiar estatuan**, **135 frantziar estatuan**. Haietako **8 besterik ez dira Euskal Herriko kartzelatan**. Euskal preso politikoa bat Portugalen da, beste hiru Ingalaterran, beste bat ipar Irlandan eta beste bat Eskozian. Beste 11 gizon/emaztek kondena etxean betetzen dute eritasun larri baten ondorioz, segurtasun neurri zorrotzekin, bat Autun-en (Saône-et-Loire) asignatua da eta beste bat Italian bere Romako etxean. Azkenik, euskal hiritar aintz kontrol judizialpean dira epaiketaren zain, presondegiratuak izaiteko arriskuarekin edota bere herrian bizitzea debekatzen dien prozedurapean.

Frantziar eta espainiar estatuko presoek orokorki bezala, Kolektiboko presoek bizi baldintza tamalgarri bezain eskandalagarriak pairatzen dituzte, erdi aroko kartzela sistema batean. Izan aintzinako presondegia osasungaitzak edo gizatasunik gabeko egoitza berriak, erregimena txantaia eta mendekuan oinarritzen da beti. Honi, terrorismoaren kontrako legeak eta etengabe berritzen dituzten neurri bereziak gehitu behar zaizkio.

Hain zuzen ere, estatuak ez diete inungo estatutu politikorik onartzen euskal presoek, alta, erregimen arrunt berezia aplikatzen diete. Zaintza berezietaz gain, hainbat neurri errepresaliatzaile pairatzen dituzte.

1.- Urruntasuna eta sakabanaketa

Sakabanaketa politika 80garren hamarkadan ezarri zuten martxan bi estatuak. Gaur egun, espainiar estatuko **445 presoak 48 kartzelatan** sakabanatuak dira, batz besterik **Euskal Herritik 632 km-ra**. Frantziar estatuko **135 presoak 32 presondegitan** sakabanatuak dira, batz besterik **Euskal Herritik 808 km-ra**. Presondegia barnean ere, askotan presoak auzo, modulu edo dibisio desberdinetan banatuak dira.

Politika honen ondorioak izugarriak dira presoentzat. Gero eta urrunago eta

isolatuago izan bata besteengandik, gero eta tratu txar gehiago kartzela agintariengandik : kolpeak (auzitegirako bidean besteak beste), jazarpen, zigor arbitrario eta guztiz desorekatuak ... 30 urtetan, **21 preso hil dira** burdinen gibelean egoera honen ondorioz.

Bainan ondorioak are gogorragoak dira familientzat. Sakabanaketa hasi zenetik, **400 istripu baino gehiago** gertatu dira bisitetarako bideetan (13 2011n, jadanik 12 2012ko agorrilan) eta **16 hurbilekok galdu dute bizia**. Beste hamarnaka izan dira zaurituak eta kalte materialak konda ezinak dira. Gainera, istripu arriskuaz gain, bisita horiek gastu eta zailtasun haundiak dakartzate (hilabetean bat az bestea **1.500 eta 2.000 € artean familia** bakoitzeko). Neurri hau bihurria da, hurbilekoei gutxiagotan etortzeko eskatzera bultzatzen baititu presoak.

Prebentiboan diren presoek kasuan (behin behineko atxilotzealdia auziaren zain), askotan erabiltzen den argumentua da, atxilotuak epailearengandik ahal bezain hurbil izan behar duela. Argumentu hau gezur hutsa da : kondenatuak ez diren preso andana bat Madril eta Paristik urrun sakabanatuak dira eta bidaia neketsuak jasan behar dituzte auzitegira deituak direlarik. Abokatuak ezin dute gainera beren lana baldintza egokietan burutu, eta defentsarako eskubideak eragozpen gogorrak pairatzen ditu.

2.- Isolamendua

Urruntasun eta sakabanaketak, gutunak jasotzeko etengabeko oztupoak, telefonoa erabiltzeko oztupoak, bisitetarako oztupoak... presoak familiarengandik, sozialki edo politikoki isolatzeko erabiltzen dira. Honi, era desberdinetako isolamendua gehitzen diete askotan kartzela administrazioek.

Isolamendu orokorra: ainitzetan erabilia espainiar presondegietan, presoak giza harreman orotarik isolatzea du helburu, eta presoak zaindariak edo bisitariak berina baten atzean besterik ez dituzte ikusten. Neurri hau **“tortura txurria”** deitzen da eta askotan salatu dute nazioarteko giza eskubideen aldeko erakunde desberdinek.

Diziplina auzoa edo zigor ziega : **zigor ziega**, presondegi barneko presondegia da. Presoak zigortzeko balio du eta ainitz erabilia da frantziar presondegietan, presoek protestei erantzun gisa. Zigor ziegan den presoak arrunt isolatua da, kartzelak finkatu duen epe mugatu baterako eta normalki ezin da 30 egun baino gehiagokoa izan Frantzian (45 2009ko legea aintzin). Bisitak murriztuak dira eta ez du inolako kontakturik beste presoekin. Mitarra-

ren borondatezko okupazioa borroka mota bat ere bai.

Beste euskal preso politikoekiko isolamendua : aintz erabilia ere frantziar estatuan, neurri honen helburua preso modulu edo presondegi batean bakarrik mantentzea da. Honela, besteengandik isolaturik, ezin du gehiago bere hizkuntzan mintzatu, askoz minberagoa zaizkio bai berari eta baita familiari ere administrazioaren erasoak. 14 preso egoera horretan aurkitzen dira gaur egun, 3 Euskal Herrian, 5 Espainan eta 6 frantziar kartzeletan

3.- **Bukaerarik gabeko kondenak eta biziarteko kartzela**

Dena egin dute kondenak ahal bezainbat luzatzeko, izan auzi denboran etengabe gogortzen dituzten legeekin, izan kondenak kudeaketan. Neurri desberdinen bidez, kondena bukatua duten presoak edo baldintzapeko askatasunerako behar dituzten baldintza guztiak betetzen dituztenak ere, preso atxikiak dira kondena luzeak biziartekoak bilaka araziz.

Neurri honen adibide bat, preso batzuei frantziar estatuan ukatu zaien kondenak nahasketa da. Honela, kondenak luzatuz doaz, eta nahiz eta kondena haundiena 5 edo 7 urtekoa izan, presoak **30 urte baino gehiagoko** kondena biltzen du.

Beste adibide bat, baldintzapeko askatasunerako baldintza guztiak betetzen dituen preso kasua da, zoini askatasunerako epaileak baldintza politiko berriak inposatzen dizkien. Horietan, beste euskal presoekin harremanik ez izatea, euskal prentsarik ez irakurtzea, ingurumenarekin harremanak mozte...

Azpitarratzekoa da frantziar estatuan biziarteko kondenak duten berezitasuna. Nahiz eta kontrakoa uste izan, ez da urte kopuru maximo bat existitzen Frantzian, Europako best estatuetan ez bezala. Biziarteko zigorrera kondenatua den preso batek baldintzapeko askatasuna eska dezake 15 urteren buruan (edo segurtasun kondena bete ondoan, kondenari neurri hau gehitzen bazaio), baina erabakia Kondenen Aplikapenen Epailearen esku da, eta honek etengabe uka dezake (ikus aurreko paragrafoa). Preso sozial batzuek 40 urte baino gehiago pasa dituzte kartzelan Frantzian. 3 euskal preso politiko 22 urte baino gehiago daramatzate frantziar kartzeletan, "perpétuité" neurri honen parean.

Azken adibidea, baina larrien bat, espainiar **auztegi gorenaren** 2006an martxan ezarri zuen **197/2006 erabakia**, Parot doktrina deitua, zeinen arabera, kondenak arintzeen kalkulatzeko moldea aldatuz, kondenak urte bat-

zuez luzatuak diren. Erabakia aintzetzan atera baino egun batzu lehenago jakinarazten diote presoari. Gaur egun, **67 preso** dira neurri honen menpe espainiar presondegietan (haietako 10 2012ko urtarrilatik). Horietarik 53k jadanik libre behar lukete duela urte zenbait. **85 pertsonak** orotara pairatu behar izan dute neurri hau. 18 izan dira askatuak kondena osoa bete ondoan (2012ko uztaileko zenbakiak). 2012ko uztailean, 197/2006 doktrina ez dela onargarria esan dio Espainiari Estrasburgoko Giza Eskubideen Auzitegiak, Ines del Rio 1987tik dago preso, eta 2008ko uztailean libre ateratzekoa bazen ere, 2017ra arte luzatu zioten zigorra. Erabaki honen kontra errekurtsioa ezarri du espainiar gobernuak urriaren hasieran.

Orotara, **150 preso baino gehiagok** betetzen dituzte baldintzapeko askatasunerako kriterio guziak.

94 presok 20 urtetik gorako espetxealdiak beteak dituzte. Haietako 28 25 urte baino gehiago daramatzate presondegian.

Azkenik, azpimarratu behar da 160 euskal preso politiko behin behineko atxiloaldian direla eta egoera honek urteetan zehar iraun dezakela, batzuentzat 6 urte edo gehiago Frantzian. Behin behineko presondegiratzeak salbuespenekoa behar luke baina ia sistematikoki aplikatua zaie militante euskaldunei.

4.- Eri diren presoak

Urte luzeak bizi baldintza zailetan, eta etengabeko presioak arazo fisiko eta/edo psikologiko ugari sortzen dituzte. Gainera, mediku arta gutxienekoa da normalki presondegietan, eta are konplikatua da euskal presoek inposatzen zaizkien segurtasun neurri desberdinengatik. Honela, diagnostiko arrunt bat sekulako arazo bilakatzen da presondegian : hilabeteetan itxoin beharra hitzordu sinple batentzat –askotan azken momentuan ezeztatua dena -, ospitalerako bidaiak eskolta ikusgarriekin eta gertakari desberdinekin, mediku azterketak funtzionarien eta polizien zaintzapean. Presondegia **konfiantzako medikuaren bisita ukatzen du** kasu gehienetan. Oso zaila da ere, ezinezkoa ez erraiteagatik, preso baten mediku txostena lortzea. Gainera, sekretu medikala ez da existitzen presondegian.

Nahiz eta legearen arabera bi Estatuetak legeak dioen eritasun larri eta sendaezina duen presoaren atxiloaldia bertan behera gelditu behar dela, kartzela agintariek orokorki burdinen atzean mantentzen dituzte azken unerarte, kanpoan ukan dezaketen mediku arta galeraziz honela. Jaiki Hadi pla-

taformak azken asteetan kaleratu dituen datuen arabera, 24 euskal preso hil dira kartzelan edo atera eta berehala. 2012ko uda osoan, mobilizazio handiak izan ziren Iosu Uribetxebarriaren sustenguz, honek Donostiako ospitalean bere egoera (beti preso fase terminaleko minibiziarekin) eta zaindarien partez jasan behar zituen neurri krudelengatik gose greba abiaratzea erabaki zuen egunetik. Euskal presoak egoten diren presondegi gehienetan gose greba luze, toki ainitzetan eguneroko elgarretaratze, eragile askoren dei guztien ondotik, azkenean, Iosuri baldintzapeko askatasuna eman zioten Irailaren 12an. Gaur egun, 13 dira oraindik preso nahiz eta eritasun larri eta sendaezinak izan. 3k eritasun psikologiko larriak dituzte, 5ek bihotzeko eritasun larriak, 2k minbizia eta 5k beste gaixotasun batzu. Beste 12 gizon eta emazte beren etxean konfinatuak dira eritasun larriengatik, zaintza neurri gogorrekin. Denek libre behar lukete. Kartzelak edo kontrol neurriek ez diete uzten behar duten arta izaten, eta beren kondena heriotz zigorra bilakatzen da.

Kondena luze eta presoaren osasun egoeraren okertzea bat datozela azpimarratzen dute Jaiki Hadiko medikuek. Hain zuzen ere, **22 presok 60 urte baino gehiago dituzte**, eta **horietarik 9 gaixo** daude. **94 gizon eta emazte dira preso duela 20 urte baino gehiago**, eta horietarik 27k behar dute mediku arta. Bestalde, 42k, ahal den neurrian eta baldintza latzetan segipen psikologikoa badute, hau da aurrenako urtean baino 8% gehiago (*2012ko uztailaren zenbakiak*)

5.- Euroagindua

Euskal preso ainitzeri aplikatua, euroagindu prozedura Europar Batasunak onetsi zuen Aznar gobernuak bultzaturik. Frantses Eskubidearen baitan sartu zen 2004eko apirillean. Helburu zuen extradizio prozeduren errextea, europear bat Europako beste estado baten esku uzteko. Egiazki, oinarrizko askatasunen gibelapen bat gehiago ekarri zuen.

Inkriminazio bikoitzaren printzipioa desagertarazi du, hunek leporatutakoa delitu izaita bi estadoetan eskatzen zuelarik. Euroagindua prozedura laster egiten da. Auzitegiak forma baizik ez du aztertzen, funtsa ikertu gabe. Indarrean sartu zenetik, ehundaka presuna utzi dizkio frantses estadoak espaniol estadoari, defenditzeko aukerarik utzi gabe akusatuari. Kasu anitzetan, espaniol kaserneetan torturapena ardietsitako deklarazioetan oinarritzen da euro agindua. Prozedura hau salatzen dute politiko eta sozial eragile anitzek. Salbuespeneko legedi bat baimentzen dio estado bakoitzari.

6.- Frantses estadoan egoiteko debekua

Euskal militanteeri jasarazten dieten presondegiratzeaz gain, ardua frantses estadoan egoiteko debekua gehitzen diete. Hala da espaniol nazionalitatea duten preso guzientzat kasik, eta betirako debekua emaiten diete. Hala nola, bere kondena frantses kartzeletan osoki bete duen eta espaniol estadoan prozedurarik ez duen presuna bat ez dute askatuko, baizik eta mugarat eramane eta espaniol poliziaren eskutan utziko, debeku hortan oinarriz. Ezingo du sekulan itzuli, haren familia Ipar Euskal Herrian bizi bada ere, edo haren bizilaguna edo hurbilekoa Frantzian preso bada ere. Frantses nazionalitatea duten preso batzuek ere frantses estadoan egoiteko debekua jasotzen ahal dute, partez, departamendu batzuetan adibidez.

Neurri hau gehitzen ahal zaie ere baldintzapeko askatasunak inposatzen dituen araueri.

7.- Beste eskubide guztien urraketa

Kartzela sistemak, gaur egun existitzen den bezala, beste hainbat **zigor arbitrario** gehitzen dizkio jadanik gogorra den askatasunaren urraketari. Honela, eskubide arrunt oro **txantaia sistematiko** bilakatzen da. **Eskubide guziak urratuak** dira erregularitasun handiarekin. **Norberaren eskubideak zein zibilak**: baldintza duinetarako eskubidea, ez gaizki tratatua izateko eskubidea, mediku artarako eskubidea, harreman afektibo eta sozialetarako eskubidea, norberaren hizkuntza mintzatzeko eskubidea, guraso izateko eskubidea, ikas-teko eskubidea... **Eskubide kolektibo edo politikoak** : eztabaidatzeko eskubidea, antolatze eskubidea, bozeramaileak ukaitzeko eskubidea, beste aktore politiko eta sozialekin harremanak izateko eskubidea... Denak ainitzetan zapalduak dira.

FRANTZIAR ESTATUKO EUSKAL PRESO POLITIKOAK

2012ko iraila

ARLES

1. Elorrieta Sanz, Ibon (100)
2. Lopez de Bergara Astola, Iñaki (52)

BAPAUME

3. Sansebastian, Beñat (5 064)
4. Goirizelaia Gonzalez, Cristina (4 754)

BOIS D'ARCY

5. Esparza Ortega, Iker (75 515)
6. Garitagoitia Salegi, Iurgi (77 213)
7. Iriondo Yarza, Aitzol (74 735)
8. Oa Pujol, Oier (80 599)

BORDEAUX-GRADIGNAN

9. Agirregabiria del Barrio, Arkaitz (71 587)
10. Errasti Goiti, Zuhaitz (71 286)

BOURG-EN-BRESSE

11. Aranburu Sagarminaga, Xabier (2 664)
12. Mujika Andonegi, Ander (2 684)

CLAIRVAUX

13. Eskisabel Urtuzaga, Peio (10 530)
14. Kortazar Garcia, Aitor (10 455)
15. Oiarzabal Txapartegi, Asier (10 420)

CHALONS EN CHAMPAGNE

16. Comes Arranbillet, Olga (33 427)
17. Lacroix, Naia (33 428)

FLEURY MEROGIS

18. Agirre Goñi, Ekaitz (359 054 B D1)
19. Akarregi Casas, Alex (371 856 S D2)
20. Ardanaz Armendariz, Oier (389 056 N D2)
21. Arruabarrena Carlos, Jabi (374 360 D1)
22. Astiz Arangoa, Ugaitz (369 790 W D2)
23. Bengoa Lpz de Armentia, Asier (366 959 U D1)
24. Bilbao Aresti, Eneko (353 998 F D1)
25. Cardaño Reoyo, Aingeru (359 053 A D3)
26. Elizaran Aguilar, Aitor (376 473K D3)
27. Etxaburu Artetxe, Aitzol (375 338B D2)
28. Garcia Gonzalez, Jose Juan (359 242 F D1)
29. Igartua Etxebarria, Igor (358 542V D3)
30. Iribarren Galbete, Iñaki (377 897 H D2)
31. Larretxea Mendiola, Joanes (376 298 V D1)
32. Lopez de Lacalle Gauna, Alberto (366 502 D3)
33. Lopez Peña, Xabier (366 077 K D3)

34. Mendinueta Mintegi, Iurgi (382 026 W D2)
35. Oses Carrasco, Jose Javier (396 380 Y D3)
36. Salaberria Sansinea, Jon (366 076 J D2)
37. Suberbiola Zumalde, Igor (366 075 H D1)
38. Areitio Azpiri, Alaitz (358 367E 6E)
39. Cornago Arnaez, Galder (359 557 Y 6E)
40. Chivite Berango, Mercedes (329 018 D 4E)
41. Legorburu Madinabeitia, Itxaso (372 882G 4E)
42. Lopez Zurutuza, Leire (381 362)
43. Ozaeta Mendikute, Ainhoa (366 074 G 6E)
44. Plaza Fernandez, Itziar (374 574 W)
45. San Vicente Saez de Zerain, Oihana (376 472)

FRESNES

46. Errazkin Telleria, Ugaitz (963 651)
47. Ezeiza Aierra, Asier (938 938)
48. Garro Perez, Zigor (928 123 D3)
49. Iruretagoiena Lanz, Luis (933 266 D3)
50. Mateo Esparza, Ibai (944 477 D1)
51. Matxain Beraza, Alberto (945 144 D1)
52. Olza Puñal, Mikel (940 707 D1)
53. Aramendi Jaunarena, Alaitz (942 466)
54. Bernadó Bonada, Marina (951 978)
55. Beyrie, Lorentxa (954 917)
56. Mardaras Orueta, Oihana (944 475)

JOUX LA VILLE

57. Eizagirre Uranga, Julen (10 477)
58. Aramendi Landa, Marian (10 476)

LA SANTE

59. Aspiazu Rubina, Garikoitz (290 191)
60. Maiza Artola, Jan Cruz (288 704 J D1)
61. Mendizabal Cubas, Iker (288 666 D1)
62. Sarasola Yarzabal, Andoni (294 268 D2)
63. Sirvent Auzmendi, Ekaitz (290 744)
64. Urbietta Alkorta, Josu (293 719)

LANNEMEZAN

65. Agerre, Didier (1 993)
66. Aranburu, Frederic (1 594)
67. Esparza Luri, Iñaki (2 199)
68. Fernandez Iradi, Ibon (2 226)
69. Lete Alberdi, Jose Ramón (2 196)
70. Segurola Kereketa, Joseba (2 387)

LIANCOURT

- 71. Etxeberria Oiarbide, Jon (8 115)
- 72. Oroz Torrea, Mikel (7 187)
- 73. Saez de Jauregi Ortigosa, Iban (7 188)

LYON CORBAS

- 74. Albisu Iriarte, Mikel (5 508)
- 75. Labaka Larrea, Urko (5 213)
- 76. Zobaran Arriola, Alejandro (5 216)
- 77. Lozano Miranda, Jone (5 331)
- 78. Iparragirre Genetxea, Marixol (5 509)
- 79. Uruburu Zabaleta, Eider (5 326)

MEAUX-CHAUCONIN-NEUFMONTIERS

- 80. Aginagalde Ugartemendia, Beñat (7 311)
- 81. Arietaleaniz Telleria, Iñaki (6 779)
- 82. Gurrutxaga Gogorza, Oroitz (10 984)
- 83. Uriarte Cuadrado, Alexander (6 039)

MONT DE MARSAN

- 84. Saint Pee, Jean Marie (1 683)

MOULINS-YZEURE (KONDENATUAK)

- 85. Abaunza Martinez, Javier (13 007)
- 86. Agirre Garcia, Harriet (13 741)
- 87. Aranibar Almandoz, Joseba (14 098)
- 88. Berasategi Eskudero, Ismael (13 333)
- 89. Lizundia Alvarez, Iñaki (12 769)
- 90. Vallejo Franco, Iñigo (13 482)

MOULINS-YZEURE (PREBENTIBOAK)

- 91. Gomez Mielgo, Oier (13 648)

MURET CD

- 92. Estevez Paz, Juan Carlos
- 93. Parot Navarro, Ion (9 680)
- 94.. Zeberio Aierbe, Jose (9 860)

MURET SEYSSES

- 95. Garmendia Marin, Oihana (20 173)
- 96. Moreno Martinez, Itziar (20 174)

NANTERRE

- 97. Ayestaran Legorburu, Jose Lorenzo (33 306)
- 98. Barandalla Goñi, Oihan (28 894)
- 99. Borrero Toribio, Asier (33 719)
- 100. Martitegi Lizaso, Jurdan (31 871)

OSNY

- 101. Fernandez Aspurz, Joseba (52 295)
- 102. Gutierrez Elordui, Borja (52 293)
- 103. Sancho Marco, Iñigo (52 294)

POITIERS VIVONNE

- 104. Zarrabeitia Salterain, Eneko (1 964)
- 105. Azpitarte Rejado, Gorka (1 893)

- 106. Aranalde Ijurko, Maite (851)
- 107. Sanchez Iturregi, Saioa (2 388)

POISSY

- 109. Garate Galarza, Enrique (11 807)
- 110. Otxoantesana Badiola, Jon Aingeru (11 765)
- 111. Vicario Setien, Gregorio (11 498)

RENNES

- 111. Alberdi Zubirremerterria, Ane Miren (6 994)
- 112. Gimón, Lorentxa (7 228)
- 113. Lopez Resina, Maria Dolores (7 075)
- 114. Perurena Pascual, Argi (6 411)

ROANNE

- 115. Juarros Ruiz de Gordejuela, Maite (832)
- 116. Zaldua Iriberry, Miren Itxaso (930)+Jurdan semea

SAINT MARTIN DE RE

- 117. Esnal, Jakes (14 207)
- 118. Karasatorre Aldaz, Juan Ramon (14 337)
- 119. Martinez Bergara, Fermin (14 461)
- 120. Merodio Larraona, Zigor (14 716)
- 121. Rubenach Roiz, Jon (14 494)
- 122. Saez de Egilaz Murgiondo, Carlos

SAINT MAUR

- 123. Atxurra Egurrola, Julen (4 116)
- 124. Bienzobas Arretxe, Jon (4 411)
- 125. Elizegi Erbiti, Iñigo (4 403)
- 126. Ilundain Iriarte, Alberto (4 262)
- 127. Palacios Aldai, Gorka (4 544)

TARASCON

- 128. Almandoz Erbiti, Mikel (9 734)
- 129. Sueskun Gonzalez, Ibai (10 495)

UZERCHE

- 130. Olzomendi, Mattin (10 405)

VILLEFRANCHE SUR SAONE

- 131. Goieaskoetxea Arronategi, ibon (23 054)
- 132. Mujika Andonegi, Julen (23 495)
- 133. Rivero Campo, Ruben (23 055)

VILLEPINTE

- 134. Dominguez Atxalandabaso, Iñaki (28 783)
- 135. Karrera Sarobe, Mikel Kabikoitz (28 782)

AUTUN (KONFINATUA)

- 1. Segurola Maioz, Patxi

Ipar Euskal Herriko familiak

33 familia

40 preso

Guimon familia

Angelu

Lorentxa Guimon

Preso azken **9 urteetan**
(2003ko urtarrilaren 22an atxilotua)

Gaur egun **Rennes-en** **669 km**

Kondena : 17 urte + 17 urte + 8 urte +
hilabete bat (ADNa ematea uko egiteagatik)
= 42 urte, 20 urtera ekarriak kondenen
nahasketarekin

Baldintzapeko askatasunean ateratzen ahal litzateke
2014ko maiatzan



Juantxo Esnal

Preso azken **14 urteetan**
(1998ko martxoaren 21ean atxilotua)

Gaur egun **Valencia III-n** **664 km**

Kondena : 18 urte

Baldintzapeko askatasunean
ateratzen ahal lizateke 2016eko azaroan



Iñaki Esparza (Iruña)

Preso azken **8 urteetan**
(2004ko apirilaren 2an atxilotua)

Gaur egun **Lannemezan-en** **221 km**

Kondena : 17 urte (2/3 segurtasunean) +
19 urte (2/3 segurtasunean) + 16 urte
(2/3 segurtasunean) + Frantziar lurraldean
bizitzeko behin betiko debekua

Euroagindu 1 onartua



Beyrie familia

Kanbo

Lorentxa Beyrie

Preso azken **11 urteetan**
(2001eko abenduaren 12an atxilotua)

Gaur egun **Fresnes-en** **797 km**

Kondena : 5 urte + 5 urte + 5 urte + 10 urte
+7 urte = 32, 27 urtera ekarriak kondenen
nahasketarekin

Baldintzapeko askatasuna lortzen ahalko
luke 2012ean



Aitzol Gogorza (Orereta)

Preso azken **13 urteetan**
(1999ko abenduaren 16an atxilotua)

Gaur egun **Basauri-n** **155 km**

Espanian 2011z geroztik, 12 urte pasa ondoan
Frantziar presondegietan

Kondena : 10 + 4 urte Frantzian,
20 urte Espainan

Baldintzapeko askatasunean ateratzeko eskubidea orain
luke **larriki eri** delako



Goieaskoetxea familia

Urruña

Ibon Goieaskoetxea (Busturia)

Preso azken **2 urteetan**
(2010eko otsailaren 28an atxilotua)

Gaur egun Villefranche-sur-Saône-en **792 km**

Behin behineko atxiloaldian
Euroagindu bat onartua



Eneko Goieaskoetxea (Busturia)

Preso azken urte hontan
(2011ko uztailaren 07an Ingalaterran atxilotua –
euroagindu baten bidez)

Gau egun Soto del Real-en **444 km**

Behin behineko atxiloaldian
Estradizio eskaera bat onartua, hurranekoa



Oxandabaratz familia

Gamarte

Julen Mujika (Donostia)

Preso azken **9 hilabeteetan**
(2011ko abenduaren 13an atxilotua)

Gaur egun **Villefranche-sur-Saône-en:** **792 km**

Behin behineko atxiloaldian




Ander Mujika (Donostia)

Preso azken **4 urteetan**
(2007ko irailaren 01ean atxilotua)

Gaur egun **Bourg-en-Bresse-n** **917 km**

Behin behineko atxiloaldian

2 euroagindu onartuak



Parot familia

Baiona

Jon Kepa Parot

Preso azken **22 urteetan**
(1990ko apirilaren 04ean atxilotua Baionan)

Gaur egun **Muret-en** 319 km

Kondena : 4 urte + departamendu batzutan
egoteko 6 urteko debekua + biziartekoa

Baldintzapeko askatasunean ateratzeko eskubidea
luke 2005etik, eskaerak ukatuak 2007 eta 2011n.
3garren eskaera ukatua izan da 2012ko uztailan
(deiaaren ondotik azken erabakia atzeratua)




Unai Parot

Preso azken **22 urteetan**
(1990eko apirilaren 02an atxilotua Satiponcen –
Sevillan eta torturatua inkomunikazioaren
egunetan)

Gaur egun: **Puerto III-n** 1128 km

Kondena : 40 urte

197/2006 doktrina aplikatu diote



Sansebastian familia

Bidarte

Beñat Sansebastian

Preso azken **7 urteetan**
(2005eko maiatzaren 23an atxilotua)

Gaur egun **Bapaume-en** 962 km
(beste euskal preso politikoengandik bakartua)

Kondena : 6 urte + 10 urte = 16,
10 urtera ekarriak kondenen nahasketarekin

Baldintzapeko askatasunean ateratzeko
eskubidea luke 2011z geroztik



Cristina Goirizelaia (Arrasate)


Preso azken **9 urteetan**
(2003ko urtarrilaren 10ean atxilotua)

Gaur egun **Bapaume-en** 962 km
(beste euskal preso politikoengandik bakartua)

Kondena : 15 urte (2/3 segurtasunean)
+ Frantzia egoetko debekua

Baldintzapeko askatasunean ateratzeko
eskubidea luke 2013an

Estradizio eskaera 1 onartua



Aguerre Familia

Pagola

Didier Aguerre

Preso azken **11 urteetan**
(2001ko irailaren 23an atxilotua)

Gaur egun Lannemezan-en **221 km**

Kondena : 18 urte (1/2 segurtasunarekin)
+ 3 urte + 17 urte (2/3 segurtasunarekin)
+ urte 1 (ADN ematea uko egiteagatik).
Kondenen nahasketa galdegina izan da.

Baldintzapeko askatasunean ateratzeko
eskubidea luke 2019an



Albistur familia


Azkaine

Borja Gutierrez (Berango)

Preso azken 6 urteetan
(2006ko abenduaren 02an atxilotua)

Gaur egun Villepinte-n **833 km**

Kondena : 6 urte, dei auzian 8 urtera ekarriak
+ Frantziar lurraldean bizitzeko behin betiko
debekua + beste auzi baten zain



Arakama familia

Eiheralarre

Iñaki Arakama (Gasteiz)

Preso azken **15 urteetan**
(1997ko agorrilaren 09an atxilotua,
9 urteko deportazioaren ondoren)

Gaur egun **Sevilla II-n** **1100 km**

Kondena : 30 urte

197/2006 doktrina aplikatu diote



Aranalde familia

Irisarri

Maite Aranalde (Ibarra)

Preso azken **2 urteetan**
(2010eko maiatzaren 20an atxilotua) –
jadanik preso egona 2005tik 2009ra

Gaur egun **Poitiers-Vivonne-n** **453 km**

Behin behineko atxiloaldian

2 euroagindu onartuak



Arizkuren familia

Baiona

Josexo Arizkuren (Iruña)

Preso azken **13 urteetan**
(1999ko martxoaren 09an atxilotua)

Gaur egun **A Lama-n** **843 km**

Espainian 2006az geroztik, 7 urte pasa ondoan
Frantziar presondegietan

Kondena : 30 urte + beste auzi baten zain

Baldintzapeko askatasunean ateratzeko eskubidea
orain luke **larriki eri** delako



Arkauz familia

Baiona

Josu Arkauz (Arrasate)

Preso azken **21 urteetan**
(1991ko martxoaren 20ean atxilotua)

Gaur egun **Zuera-n** **386 km**

Espainian 1997az geroztik, 6 urte pasa ondoan
Frantziar presondegietan

Kondena : 30 urte

Baldintzapeko askatasunean
ateratzeko eskubidea luke



Arriaga-Gastesi familia Bidarra

Josune Arriaga (Iruña)

Preso azken **2 urteetan**
(2007ko azaroan atxilotua, libre utzia hilabete
preso pasa ondoan, berriz atxilotua
2010eko maiatzaren 10ean eta berehala estraditua)

Gaur egun **Topas-en** 460 km

Kondena: 23 urte Espainan



Arrozpide familia Miarritze

Santi Arrozpide Sarasola (Lasarte)

Preso azken **25 urteetan**
(1987ko irailaren 30ean atxilotua)

Gaur egun **Zuera-n** 386 km

Espainian 2000z geroztik, 13 urte pasa ondoan
Frantziar presondegietan

Kondena : 30 urte

197/2006 doktrina aplikatu diote



Ayestaran familia

Baiona


Jose Lorenzo Ayestaran (Lezo)

Preso azken **2 urteetan**
(2010eko otsailaren 28an atxilotua)

Gaur egun Nanterre-n **816 km**

Behin behineko atxiloaldian

3 estradizio eskaera + euroagindu bat onartuak



Barandalla familia


Baiona

Ohian Barandalla (Etxarri)

Preso azken **5 urteetan**
(2007ko irailaren 01ean atxilotua)

Gaur egun Nanterre-n **816 km**

Kondena : 7 urte, beste auzi batzuen zain



Esnal familia

Donibane-Lohitzune

Jakes Esnal

Preso azken **22 urteetan**
(1990eko apirilaren 04ean atxilotua)

Gaur egun **St Martin de Ré-n** 431 km

Kondena : 10 urte + biziartekoa
(18 urteko segurtasunarekin)

Baldintzapeko askatasunean ateratzeko
eskubidea luke 2008az geroztik



Gomez familia

Azkaine

Aratz Gomez

Preso azken **13 urteetan**
(1999ko azaroaren 16an atxilotua)

Gaur egun **Ocaña I-ean** 638 km

Kondena : 18 urte

Baldintzapeko askatasunean ateratzeko
eskubidea luke



Gramont-Gobet familia

Basusarri - Senpere

David Gramont

Preso azken **14 urteetan**
(1998ko martxoaren 21ean atxilotua)

Gaur egun **Puerto III-n** **1128 km**

Kondena : 18 urte

Baldintzapeko askatasunean ateratzeko eskubidea luke



Haranburu familia

Senpere

Frédéric « Txistor » Haranburu

Preso azken **22 urteetan**
(1990eko apirilaren 04ean atxilotua)

Gaur egun **Lannemezan-en** **221 km**

Kondena : 10 urte + biziartekoa
(18 urte segurtasunarekin)

Baldintzapeko askatasunean ateratzeko
eskubidea luke 2008az geroztik



Lacroix familia

Senpere

Naia Lacroix

Preso azken **8 hilabeteetan**
(2012ko otsailaren 14ean atxilotua)

Gaur egun Chalons-en-Champagne-en **950 km**

Behin behineko atxiloaldian



Matxikote familia

Uztaritze

Garikoitz Mujika (Olaberria)

Preso azken **3 urteetan**
(2005eko otsailaren 17an atxilotua eta
2009ko urriaren 30ean)

Gaur egun Alicante-n **852 km**

Kondena : 6 urte

Espanian 2009az geroztik Frantziak onartu
euroagindu baten ondotik

Baldintzapeko askatasunean ateratzeko
eskubidea luke



Oihenart familia

Hazparne


Zuhaitz Errasti (Aretxabaleta)

Preso azken **3 urteetan**
(2009ko urriaren 26an atxilotua) –
jadanik presondegiratua 2005etik 2008ra

Gaur egun **Gradignan-en** **220 km**

Behin behineko atxiloaldian azken 3 urteetan

Euroagindu 1 onartua



Olzomendi familia

Ziburu

Mattin Olzomendi

Preso azken **2 urteetan**
(2010eko martxoaren 30ean atxilotua)

Gaur egun **Uzerche-en** **451 km**
(beste euskal preso politikoengandik bakartua)

Kondena : 5 urte

Baldintzapeko askatasunean ateratzeko
eskubidea luke 2012ko agorrilan



Otxoantesana familia

Miarritze

Jon Aingeru Otxoantesana (Ondarru)


Preso azken **10 urteetan**
(2002ko agorrilaren 25ean atxilotua)

Gaur egun **Poissy-n** **816 km**

Kondena : 5 urte + 13 urte (2/3 segurtasunean)
+ Frantziar lurraldean bizitzeko behin betiko debekua

Baldintzapeko askatasunean ateratzeko eskubidea luke 2011z geroztik

Estradizio eskaera 1 onartua



Perurena familia

Hendaia

Argi Perurena

Preso azken **13 urteetan**
(1999ko irailaren 30ean atxilotua)
jadanik preso egona 97ko otsaila
eta 97ko azaroa artean

Gaur egun **Rennes-en** **669 km**

Kondena : 3 urte + 18 urte + Frantziar lurraldean
bizitzeko behin betiko debekua kondenen
nahasketa ukatua 2010eko apirilan

Baldintzapeko askatasunean ateratzeko eskubidea luke 2012an



Rekalde familia Larresoro


Oier Oa (Donostia)

Preso azken **7 hilabeteetan**
(2012ko otsailaren 24ean atxilotua)

Gaur egun **Bois d'Arcy-n** **812 km**

Behin behineko atxiloaldian

Euroagindu 1 ukatua 2012eko ekainan



Rouget familia Uztaritze

Joseba Aranibar (Bera)

Preso azken **5 urteetan**
(2007ko uztailaren 02an atxilotua)

Gaur egun **Moulins-Yzeure-n** **674 km**

Kondena : 9 urte + Frantziar lurraldean
bizitzeko behin behineko debekua

Baldintzapeko askatasunean ateratzeko
eskubidea luke 2012an

Euroagindu baten parte bat onartua, beste baten
erabakiaren zain Espainir estatuan torturengatik abiatua
den auzi baten emaitza ukan bitartean



Saez familia

Hiriburu

Arkaitz Saez

Preso azken **13 urteetan**
(1999ko azaroaren 16an atxilotua)

Gaur egun **Puerto I-en** **1128 km**

Kondena : 18 urte

Baldintzapeko askatasunean ateratzeko
eskubidea luke



Saint-Pée familia

Eiheralarre

Jean-Marie Saint-Pée

Preso azken **8 urteetan**
(2004ko apirilaren 04ean atxilotua)

Gaur egun **Mont-de-Marsan-en** **144 km**
(beste euskal preso politikoengandik bakartua)

Kondena : 11 urte (2/3 segurtasunean)

Baldintzapeko askatasunean ateratzeko
eskubidea luke 2012an



Toyos Familia

Sara

Iñaki Santesteban (Iruñea)

Preso azken **12 urteetan**
(2000ko irailaren 16an atxilotua)

Gaur egun **Ocaña II-n** **638 km**

Kondena : 9 + 10 urte Frantzian,
10 urtera ekarriak kondenen nahasketarekin

Espainiara estraditua 2009ko maiatzan,
9 urte pasa ondoan frantziar presondegietan



Zabaleta familia

Baiona

Jose Javier Zabaleta (Hernani)


Preso azken **22 urteetan**
(1990ko irailaren 25ean atxilotua)

Gaur egun **Zuera-n** **386 km**

Espainian 1998tik, 8 urte pasa ondoan
Frantziar presondegietan

Kondena : 30 urte

197/2006 doktrina aplikatu diote



Zarrabe familia

Bidarte

Mikel Zarrabe (Eibar)


Preso azken **23 urteetan**
(1989ko abenduaren 01ean atxilotua)

Gaur egun **Teruel-en** **527 km**

Espainian 1995etik, 6 urte pasa ondoan
frantziar presondegietan

Kondena : 8 urte Frantzia, 18 urte Espainan

Baldintzapeko askatasunean ateratzeko
eskubidea luke. 2013rako du ateratze data



Serge Portelli, frantses epailea, frantziako presondegietan emaiten diren bizibaldintza jasangaitzetaz mintzo

Serge Portelli, epaile da Parisko dei gortean eta Syndicat de la Magistrature sindikatuko kide. Berrikitan, “Pourquoi la torture?” (zergatik tortura?) liburua argitaratu du Vrin edizioan, “Philosophie secrète” kolekzioan. Hona, Ekaitza aldizkariari egin zion elgarrizketaren zati bat, 2011ko ekainean torturaren inguruan plazaratu zenbaki berezian agertu zena.

Ekaitza : Frantziako presondegietan ezagutzen diren kondena luzeak eta presondegietako bizibaldintzak tortura mota bat direla erran ote daiteke, errepublikaren lotsarako ? Presondegietan gertatzen diren suizidioak, presoak pairatu behar dituen tratuen gaindosiaren seinale ote dira ?

Serge Portelli : Tratu krudel, jasangaitz eta ahalkegarriaren nozioa, torturarena baino berrikiago agertu da. Emeki-emeki, askatasun ezaren gibelean praktikatzen den torturaren kontrako konzientzia hartze bat eman da. Alferrikakoa da jotzea, bortxatzea, erretzea edo beste, ondorio batzuetara iristeko.

Aski da baldintza jasangaitzetan presondegiratzea ordutik ordura, egunez egun, pertsona bat sunsitzeko. Mota hontako presondegiratzeen ugaltzeak (zentro, goulag-ak, kartzela zikoitz), gaiaren larritasuna agerian utzi du. Nazioarteko konbentzioek eta jurisprudentziak, torturaren nozioa tratu jasangaitz eta ahalkegarriarekin lotu dituzte behin betiko. Mundu guzian zehar emaiten diren presondegiratze gero eta jasangaitzagoek, kartzela eta torturaren inguruko nazioarteko araudien arteko bateragarritasuna zalantzan ezartzen dituzte. Frantziak ezingo du luzaz gai hau ekidin, patologia modu batean oinarritzen den gaur egungo kartzela politikarekin segitzen badu. Kartzela politika honek ondorioak baititu : presondegiak jendez gainezka, bortizkeria, suizidioak...

Euskal preso politikoaren senideen testigantzak

Marie-Claire GRAMONT, David GRAMONT-en ama

David semearen presondegiratzea nola bizi dudan ? Zintzoki, sufrimendu handiarekin, alderateko obsesio batekin horregatik, urruntasunagatik, isolamenduagatik. David zeldan da 20 orenez egunean. Haren ikusterat joaiten giren aldi guziz, 740 km baino gehiago egin behar ditugu (...). Semeak egun batez errana beti gogoan dut : « badakizu Ama, hemen deus ez da egina 6 hilabete, ez da ere aste bat atxikitzeko ». Sustengatzen gaituzten elkartek eskertzen ditut, zeren gure huts bakarra, guri burasoeri, gure haurrak maitatzen segitzea baita.

Ursoa PAROT, Ion Kepa eta Unai PAROT-en arreba

Hainbeste urteetarik, politika krudela hunen lekuko gira. Hemen heriotz zigorrak ez da, bainan bizi osorako presondegia berdina da. Ion nere anaiari baldintzapeko askatasuna ukatu berri diote 18 urte eta gero, beraz ez dakit zenbat denboraz oraindik horrek iraunen duen. Unai anaiarentzat, lege bat ere asmatu zuten, orain beste preso guzieren aplikatzen zaiena. Unai-k gorrotatzen du, deitzen dute « Parot doktrina ». Zer nahi aitzaki edo delitu berri asmatzen dute bizi osoan preso atxiki ahal izateko. Tortura ezagutzen dugu bere alde guzietan. Adibide bat da tortura xuria. Hala deitzen zaio isolamendu osoa. Ion isolamenduan egon zen Fresnesen, Unai-k 10 urte baino gehiago pasa ditu isolamenduan. Gaur egun isolamendu osoan da, erran nahi du jende harremanik ez duela batere. Sozialki moztu, hil nahi dituzte, politika kudela da, sadikoa. Giza eskubideak ez dakite zer diren.

Argi da mendekuaren ispirituan ari direla frantses eta espaniol estadoak. Mendekatu, zigortu, suntsitu. Kondena bat luzatzea mugagabe ez da jasangarria. Ateratzea finkatua delarik 30 urte berantago, bederen epe bat emana da. Bainan kasu hortan mugarik ez da. Horregatik presoek izendatu dute « emeki doan heriotz zigorra ». Jendea suntsitzeko politika da, ez du deus ikustekorik jutziziarekin, krudeltasun hutsa da. Familiari jasarazten zaiena ere krudela da. Adibidez, bada 6 urte gure amak ezin duela gehiago mugitu semeak ikusterat joateko. Gure aita ere ezin bisitarat joanez egon zen bere biziko azken 6 urteetan. Presoak zigortuak dira, haien familiak ere bai.

**2007an egin elkarrizketa. Geroztik baldintzapeko askatasuna hiru aldiz ukatu diote Ion Kepa-ri. Bigarren aldian 2011n kondenen aplikazio auzitegiak baldintzapeko askatasuna onartu zuelarik, prokuradoreak dei egin zuen eta erabakia hautsi. Azken eskaera ukatu dute 2012ko uztailean. Honen erabakiaren inguruko errekursoaren azken erabakia 2012 irailaren 27an eman behar zuten baina atzeratua izan da.*

Haizea PAROT, Unai PAROT-en alaba

Aita ez dugu ezagutu kartzelatik kanpo. Ni bederen, bost urtetan, ez naiz ere orroitzen nere ttipitako biaz berekin. Guk sentitzen dugu batzutan harremana pixkat artifiziala dela. Ni aitataz oso hurbila naiz, sentitzen dudalako barnetik berekiko lotura, baina ikusten dut ene ahizpa txikientzat oso zaila dela harreman hori ez baitute ukan kanpoan. Dena eraiki behar da eta kartzelan oso zaila da eraikitzea. Deia isolemenduan zen baina orain eman dute zelda batean, bakarrik, patioan ere bakarrik ateratzen da. Enetzat afrosa da. Ikusi dut hori egunkarian zeren eta berekin ezin dugu hitz egin ere horretaz... Hitz egiten ahal dugu baina oso laburki eta ez dugu nahi berekin horretaz hitz egin, guk nahi dugu berekin hitz egin gauza alaietaz... Eta orduan egunkarian ikusten dugu nola den, zein baldintzetan den, eta hor ikusi dugu zelda batean dela, iluna... Badu berin bat (...) eta berin horretan eman dute burdinezko xafla bat, nahitara egin dena berak ez dezan eguzkiaren argia ikusi, eta hori enetzat jasanezina da. Berari pentsatzen dugularik, bera ikusten dugu kartzelan, itxitua eta pisu bat da.

euskal preso
politikoen
senideen
testigantzak

Iraun ZABALETA, euskal preso politiko ohia eta Jose Javier ZABALETA-ren semea

Nik lau urte pasa ditut preso, lehenengo bi urteak Fleury-Merogiseko espetxean Parisen. Lehenengo bi urteetan aita ere preso nuenik Galizia aldean, familia tartekatu behar izan zuen mila kilometro Paris aldera eta horrenbeste Curtis-eko espetxera. Mingarriena, preso batentzat, familiaren desgastea da, kostu ekonomikoa, Parisera baten batean etorri izana eta bisitarik gabe gelditzea... Bi urte horiek eta gero, hurbilketa bezala, Marseille aldera bidali ninduten. Hori haien arabera, hurbilketa zen, baina distantzia berdina zen, eta familiarentzat, antolatzeko ere, autoz joan behar izana hiru familien artean eta beste... kostu bat. Preso bezala, gehien kezkatzen zaituena da ea familia ongi iritsiko den... Agian zuretzat garrantzitsua da baina batzutan nahiago duzu familia ez etortzea familia lasai egotea arren baina pentsatzen dut familiarentzat ere oso garrantzitsua dela zure senidea ondo ikustea. Kondena bikoitza hori salatu behar da.

Jean-Claude AGUERRE, Didier AGUERRE-n anaia

Agertu nahi niena da nolako harremana dugun, badela bat bixtan dena anai eta familiko partaide bezala ditugun solasak, horiek ere inportantak baitira jende gisa baina bereziki militante politiko bezala ditugula ere solasak. Didierekin ari gira frangotan Euskal Herriko egoera politikoaz eta guhauren gogoetak trukatzan. Didierrentzat ere inportanta da bizitzea diren eztabaidak, diren gorabeherak, bere engaiamendu batean kokatu baitu bere inplikazioa eta horretara, biziki inportanta eta biziki aberasgarria da senditzea zertan den giroa, nola doazen aferak... Euskal presoak ere horren beharra badute. Militante politikoak dira. Estatus politikoa aldarrikatzen dute baina hori ere gorpuzten, aberasten da familiarrek ematen ahal diegun gogoeta eta berriekin.

Kattin SAINT-PÉE, Jean-Marie SAINT-PÉE-ren arreba

Jean-Marie-ri buruz bereziki aipatu nahi nukeena da bizi izan duen politika dispersionea eta isolamendua. Lehenik igorri zuten Rouen-era, eta han euskal preso bakarra zen. Rouen-era joatea, familientzat, guretzat biziki urrun zen alde batetik, eta oren erdiko bisitak ziren. Gero presondegiz aldatu dute lau aldiz eta beti euskal preso bakarra. Ondotik Châteauroux-ra eraman dute nun beste bi euskal presokin zen baina orduarte beti bakarrik utzi dute*.

* *Elgarrizketa hortatik landa, Jean Marie SAINT-PEE Fresnes eta Mont-de-Marsan-eko presondegietarat eremana izan da. Beti bakartua da.*

euskal preso
politikoen
senideen
testigantzak

Ana TURRILLAS, Jose Luis « Pepu » TURRILLAS-en alaba

Nere aita kartzelan egon da 2000ko irailatik 2007ko agorrilara ni kolegioa eta lizeoan nintzen bitartean. Garai horretan hasten gira pixka bat ateratzen eta gauza ainitz huts egiten dira nere kasuan Parisera joateko. Bisitak gainera biziki laburrak dira, bidaiak biziki luzeak eta akigarriak eta horrez gain ez da harremana galtzen baina segur da harremana guttitzen dela. Biziki gogorki bizi izan dudana da bisitetatik ateratzean aita aldi oro uztea bakarrik pixka bat abandonatzen bagenu bezala.

Maite ESNAL, Jakes ESNAL-en emaztea

Bada 22 urte nere senarra kartzelan dagoela. 22 urte hiri eta departamenduak trabeskatzen ditugula gure berotasun eta sustengua ekartzeko bere presondegi baldintza txarrei aurre egin dezan. Harrigarriena historio hortan da gu ere kondenatuak girela. Lehenbiziko urtetan Parisen zegoen. Nik ez nuen bisitarik. Haurrak eraman behar ziren (garaian 20 hilabete eta 8 urte) baita ezpada aita ikusteko eta harremana atxikitzeko : 800 km (joan) oren erdiko bisita batentzat. Amets gaizto horrek 8 urtez iraun du, 2 urte guziz espetxe aldaketa (la Santé, Fleury-Mérogis, Bois d'Arcy, Fresnes) beti ere oren erdiko edo gehienez oren bateko bisitarentzat. Asko asko sufritzen dute haurrek zeren eta harremana aitarekin ezin da atxiki.

Orain baditugu bi ordu t'erdiko bisistak baina iristen zarelarik eta hilean behin nola aipatu aitari nola pasatzen den eskolan edo lanean edo lagunekin edo kanpoan... Astean 3 bisiten eskubidea ezin genuen gauzatu distantzia ikusirik bainan ez dizkigute horregatik bisitak bat bestearen ondotik eman. Gertatu zaigu ere bisitarat iristea hitz ordua hartu eta gero eta bertan jakitea Jakes 3 edo 4 egun lehenago lekuz aldatu zutela, edo 5 minutuko berantarekin heltzea garraioengatik eta bisitarik gabe gelditzea, 1600km deusendako, jakinez bidaiak 150 eta 200 euro artean balio dituela.

euskal preso politikoen senideen testigantzak

Jendea ez da batere konturatzen zer den prestakuntza hori bidaia egiteko. Iristen garelarik ostiralean gehienak pentsatzen du behar bada zer egingo duen aste bukaeran... guretzat da nola egingen dugu bidaia, zer eraman behar da... Haurrak ttipiak zirelarik pentsatu behar zen satarrak, biberioia, janaria, jantziak aldatzeko... eta zer eguraldia egingo duen... Ateratzean pentsatzen hasten naiz : « agian hilabete honetan ez da ezer pasatuko etxean, ez umeekin, ez nerekin, berriro bisitara joateko ». Orduan galdera pausatzen dut : zein texto edo legeditan zehaztua da familia zigortua izan behar dela, zeren eta zigortua da, zendako presoaren beti bere herritik urrun atxikia da, bere familiaratik urrun, ez bada familiarekiko harremana zapuzteko, familiak zorretan itozteko eta estatuen kutzak oraino gehiago betetzeko ? Kalkuluen egiten uzten zaituztet, 200 euro hilabetero...

Amaia SAEZ, Arkaitz SAEZen arreba

Arkaitz atxilotu zutelarik nik 19 urte nituen eta berak 22. Normalki 19 urtekin bizi normala egitea espero duzu, normalki zure bizitzako -erraten dute gutxienez- urte hoberenak direla... Normaltasuna izan beharko luke. Niri normaltasun hori kendu didate, edo hola senditu dut behintzat. Egia da biziki gogorra dela anai arteko harreman berezi hori segitzea atxikitzen 1200 km

egin behar direlarik bera ikusteko eta denbora aintzina doa ere bai. Lotura hori biziki zaila da atxikitzea nahiko genukeen bezala gutxienez. Eguneroko bizian biziki gogorra da ere bai, hiru astez behin joan behar zirelarik hiru eguneko bidai bat egitera inposatua zaizun egoera batean. Zaila da lan mailan ere bai egun bat eskatu behar duzulako aldi oro eta zaila da ere bai harreman perstonaletan, izan dadin zure lagunekin, zure mutil-lagunarekin... No-lazpait inposatzen dizute hautu bat egitea : edo bazoaz zure anaia ikustera edo zure lagunak ikusten dituzu. .

Hegoa ARAKAMA, Iñaki ARAKAMAren alaba

Aita dut orain dela 15 urte preso eta hori baino lehen 9 urtez deportatu Dominikar Errepublikan. 8 espetxe desberdinetatik pasatu izan da eta gaur egun Sevilla In da. Isolamendu moduloan da kartzela horretan diren beste euskal presoak bezala. Isolamenduan izateak presondegia barnean presondegia ttipi batean izatea suposatzen du. Honek erran nahi du patioa oso ttipia dutela, aktibitatearik ez, lehioan, barroteez gain, burdinezko sare bat dute. Ondorioz, argia baina ere airea ezin da sartu eta udan zeldako tenperaturak oso altuak dira. Erran nahi du ere bai presondegiko asistentzia ezberdinendako tratu berezia jasaten dutela. Hilabete bat baino gehiago daramate adibidez medikuaren zain. 61 urte ditu, eta osasun arloan behar lukeen segipena ez du inondik ere.

euskal preso
politikoen
senideen
testigantzak

Bidaientzat, Bilbora joan behar dugu (hiru ordu auto), hegazkina hartu, autoa alokatu, hotelan lo egin, horrek suposatzen duen kostu eta nekearekin. Familia lorturak azkarrak badira ere argi da hori dena bizi behar izanak ondorioak badituela harremanetan. Ene seme-alabek aitaxi asko maite badute ere, ez dute maleruski amatxirekin duten hurbiltasun berdina. Senide gisa, argi da gaur egun bizi dugun egoera bai berak eta bai guk inoiz bizi izan dugun krudelena dela.

Janine BEYRIE, Lorentxa BEYRIEren ama eta Aitzol GOGORZAren amaginarreba

[[Lorentxaren kasuan] 5 dozier eraiki behar izan dira, 6 urte instrukzio, 7 urte kartzelaratze prebentiboan, 32 urteko espetxealdirat kondenatua izaiteko : 5+5+5+10+7. 32 urte hauek ez dira kriminalitatearen seinale baizik eta kriminalizazio baten lekuko. Gure militanteak ez dira egin omen dutenarendako kondenatuak baizik eta direnarendako.

Gabi Mouesca – Frantziako kartzeletan preso 1984tik 2001era, OIP (Observatoire international des Prisons - kartzelen nazioarteko behatokia) 2004tik 2009ra.

Europako kontseiluak kondena luzea deitzen dio 5 urte baino gehiago preso egoiten den pertsona bat, kriterio oso erlatiboa bixtan dena. Belgikako ikerketa batek erakusten du 5 urte askatasunik gabe pasa ondoan, libre ateratzen den pertsonarendako jendartearen ibilmoldea arrotza dela. Egiatzko bizitzatik at iraganiko 5 urte horiek, haustura bat eragiten dute, erralitatearekin bat egiteko ezintasun bat. Ikerketa berdinak erakusten du 10 urte preso pasa ondoan, ateratzen den pertsonak ez dakiela gehiago nor den. Haustura norberaren intimitatearekin egiten da, beraz pentsa kondena luzearen ondorio latza, presondegitik pasatzen den oro markatua da bizi osorako. Ez dut salbuespenik ezagutzen. Oren batzu, egun batzu nahikoak dira bizi osorako markatua izaiteko. (...)

Preso abertzale ainitzek gaur egun kondena luzeak betetzen ari dira. Ez gira ohartzen, ez eta konzienteenak edo argienak diren militanteak, zer suposatzen duen bere bizitzaren parte hain luze bat bizirik lau pareten artean pasatzea. (...)

Presoen familiak kalte « collatéraux » deitzen ditut, berez, neurritz kanpoko bizitza batean murgilduak diren pertsonak, kide bat preso dutelako. Hutsa beti presente den bizitza bat. Memento oro, orduro, egunero, familiako bizitza eskas denaren arabera egiten da. Hain presente den hutsa. Hori guzia dudarik gabe zailtasun zerranda luze batekin. Zailtasun ekonomikoak, baina ere metatutako nekea, estres permanentea, eta sekulan berriz biziko ez ditugun une galduen inpresio jasan ezina. (...)